

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA

#### MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

#### **Arabian, Kuartangoko udalerrian, Urbina Eza herrian sortutako hondakin-urak isurtzeko baimena**

Espediente-zenbakia: VDP-A-2016-0015

Eskatzailea: Urbina Ezako Administrazio Batzarra

Urbina Ezako Administrazio Batzarrak Ur Agentziako Mediterraneoko Arroen Bulegoari eskatu dio herrian sortutako hondakin-urak isurtzeko baimena, eta horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Kuartangoko udalean edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 8a

*Mediterraneoko Arroen bulegoburua*  
**AZUCENA SALAZAR BAYONA**